

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



BILDUMA PARTIKULARRA

GERNIKA BATAILOIA, 1945EAN BORDELEN DESFILATZEN

1944an, erbesteko Eusko Jauriaritzak Gernika Batailoia sortu zuen, lanbidez igeltseroa eta ANVko militantea zen Kepa Ordoki komandantearen agindupean. 1945eko apirilaren 14tik 20ra, Pointe de Grave-eko batailaren ondorengo askapenean, Gernika Batailoia alemaniar posizioen aurka borrokatu zuen. Bost gudari hil ziren eta 35 zauritu ziren. Pointe de Grave askatu ondoren, batailoiko kide batzuk kondekoratuak izan ziren. Batailoia apirilaren 22an desfilatu zuen Grayango aireportuan, eta han, De Gaulle jeneralak euskal tropak ikuskatu zituen. Esker onez, De Gaulle jeneralak haxe adierazi zion Kepa Ordokiri: «Nire komandante hori, Frantziak ez ditu inoiz ahaztuko euskaldunek gure lurra askatzeko egindako ahaleginak eta egindako sakrifizioa». Argazkian, Gernika Batailoia ikus daiteke Bordelen zehar desfilatzen, Antzoki Handiaren aurrean, 1945eko apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren urteurrenean. Lehen planoan, Kepa Ordoki komandantea eta Iguñiz agurtzen, eta bere atzean Zubizarreta, ikurrinaren ondoan. Gernika batailoia ikurrinak Jose Antonio Agirre lehendakariaren hilkutxa estali zuen 1960an hil zenean.